

aro**a**

euskara indarberritzeko
eta euskaldunok ahalduentzeko
marko estrategikoa

LEGAZPIN EUSKARA INDARBERRITZEKO ETA EUSKALDUNAK AHALDUNTZEKO MARKO ESTRATEGIKOA

2026-2036

2025eko abendua.

elhuyar
ezagutuz aldatzea

 **LEGAZPIKO
UDALA**

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	AROA MARKOA.....	4
3.	PROZESUA ETA METODOLOGIA.....	5
3.1	Helburuak.....	5
3.2	Prozesuaren oinarriak.....	5
3.3	Egiturak.....	6
3.4	Metodologia.....	7
4.	DIAGNOSTIKOA.....	8
4.1	Datu demografikoak.....	8
4.2	Ezagutza-datuak.....	9
4.3	Erabilera-datuak.....	9
4.4	Herritarren pertzepzio eta iritziak.....	10
5.	PLAN ESTRATEGIKOA 2026-2036.....	11
5.1	Planaren erronkak eta lan-ildoak.....	11
6.	PLANAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA.....	19
6.1	Gobernantza.....	19
6.2	Adierazleak.....	20

1. SARRERA

Legazpiko biztanleriaren gehiengoa euskalduna da. Tamalez, erabilera ez dator bat euskara-gaitasunarekin. Erabilera-datuek, gainera, bat egin dute euskalgintzaren itzalaldiarekin.

Euskararen biziberritzean, azken urteetan, meritu handiko ibilbidea egin dugu esparru askotan, eta arlo askotan aurreratu bada ere, azken aldian zenbait joerek erakusten dute euskararen indarberritze prozesua moteltzen ari dela: arnaguneetan euskararen erabilera jaisten ari da, euskal hiztunak irabazi bai baina askok ez dute euskaraz hitz egiteko behar besteko erraztasunik (horrek erabileran duen eragin zuzenarekin), transmisioak ere ez du bilakaera positiborik, administrazio batzuetan eta lan munduan ere ez da behar adina aurreratu...

Argi dagoena da orain artean egindakoarekin bakarrik ezin dela euskararen biziberritze-prozesuan aurrera egin, eta aro berri bati ekiteko unean gaudela. Datozen 10 urteko ziklo berrirako euskara biziberritzeko balioko duten estrategiak eguneratu eta birpentsatu behar ditugu.

Hori dela-eta, une egokia dirudi Legazpiko Udalak —eragileekin eta herritarrekin batera— normalizazioaren bidean egitekoaz gogoeta egiteko eta euskara sustatzeko proposamenak adosteko.

Horiek horrela, Legazpiko Udalak datozen urteetarako Euskararen Plan Estrategikoa, AROA, diseinatu nahi izan du. Plana egiteko erabilitako prozesua baliagarria izan da plana diseinatzeko ez ezik, geldialdi bat egiteko eta eguneroko dinamikatik harago begiratzeko; egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, egindako pausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egoeraren diagnostikoa egiteko.

Txosten honetan jaso ditugu plana diseinatzeko eman ditugun urratsak, gaur egungo Legazpiko egoeraren argazkia eta hurrengo 10 urteetan Legazpin euskara indarberritzeko planaren nondik norako nagusiak.

2. AROA MARKOA

AROA gizarte honen beharrei erantzun nahi dien marko estrategikoa da, eta balio nagusi hauek ditu: adostua, egingarria eta eragingarria izatea. Hizkuntza-ekologiaren begiradatik aniztasuna kudeatzea: hizkuntza- eta kultura-aniztasuna.

Marko honen oinarrietako bat da justizia soziala eta gizarte-inklusioa erdiesteko aukerak eta baliabideak sortzea edo erraztea eta, horretarako, zeharkakotasuna, lankidetzeta eta parte hartze koordinatua lehenesten ditu.

Euskara ardatz duten politikak bultzatu nahi ditu AROAk eta horrek dakar konpromiso eta lidergo politikoak hartzea, hizkuntza-politikaren erronkak egitura guztietan aplikatzea, sailen arteko banaketak gainditu eta osotasuna oinarri izatea, lankidetzeta modu berrietan esploratzea...

Berrikuntzan, kudeaketa aurreratuan eta metodologia-malgutasunean oinarrituta, ondokoa da AROAK hizkuntza planifikaziorako proposatzen duen egitura:

ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
GOBERNANTZA		
<p>G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.</p> <p>G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.</p> <p>G.3. Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.</p> <p>G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.</p>		
JARRERAK / MOTIBAZIOAK	EZAGUTZA / GAITASUNA	ERABILERA / ELKARRERAGINA
<p>JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.</p> <p>JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.</p>	<p>EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.</p> <p>EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.</p> <p>EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.</p> <p>EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.</p>	<p>EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.</p>
BERRIKUNTZA		
<p>B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.</p>		
KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA	KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA	
<p>IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.</p>	<p>KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.</p>	

3. PROZESUA ETA METODOLOGIA

3.1 Helburuak

Helburu nagusia izan da Legazpin euskara indarberritzeko, herritarrak aktibatze eta euskararen erabilera areagotzeko AROA plan estrategikoa diseinatzea, udalerriko eragileekin batera.

Horrez gain, zeharkako helburu batzuk ere izan ditu planaren diseinuak.

- Legazpiko arduradun politikoak eta teknikoak jabetzea euskararen normalizazioan duten arduraz eta euskara sustatzeko eta euskaldunok ahalduntzeko gobernantza-eredua adostea.
- Aurreko hamarkadan indarrean izan den planaren balantzea egitea eta ondorioak ateratzea.
- Eragileek euskararen egungo egoeraren diagnostikoa osatzea eta adostea.
- Udaleko eragileek, hainbat eremutako eragileek nahiz interesa duten herritarrek AROA planaren diseinuan parte hartzea.
- Euskalgintzan ez-ohikoak diren askotariko eragileekin bi norabideko aliantzak eragin eta lantzea; eta euskaratik gertu zein urrun dauden herritarren ahotsak jasotzea.
- Hizkuntza-aniztasunaren garrantzia azpimarratzea, eta hizkuntza-minak eta beharrak identifikatu eta lantzea.

3.2 Prozesuaren oinarriak

Egindakoaz baliatu: Legazpik ibilbide oparoa egin du euskararen normalizazioan, eta egindakoa kontuan izan dugu plana diseinatzean.

Normalizazioaren ardura eta lidergo partekatua. Plana diseinatzeko eta garatzeko arduradunen lidergoa eta elkarlana funtsezkoak dira. Proiektua kudeatzeko ezinbestekoa da udala osatzen duten arloetako kide guztien elkarlana egituratzea eta haien inplikazioa sustatzea.

Elkarlanerako zubiak ireki. Legazpiko erakundeak, elkarteak eta eragileak aliatu bihurtzeko kanalak ireki behar dira, euskaratik urrun dauden kolektiboak erakarriz eta Legazpira etorri berri direnak ere aintzat hartuta. Plana diseinatzeko, beraz, herritarren parte-hartzea sustatu dugu.

Mugimendu euskaltzalea berritu eta ez-ohiko harreman-sareak eraiki: herriko askotariko eragile eta mugimenduen artean harreman-sare sendoagoak eraikitzen ahalegindu gara.

Plan honen helburu, garapen eta balorazioan, **genero- berdintasunaren ikuspegia bermatu** dugu; bai diagnostiko-fasean bai diseinu-fasean.

3.3 Egiturak

Diagnostiko-fasean eta diseinu-fasean udaleko nahiz herriko agenteen parte-hartzea sustatzeko hiru egitura osatu ditugu:

TALDE ERAGILEA	
Partaideak	<ul style="list-style-type: none">• Legazpiko Euskara Zerbitzuko teknikaria• Euskara-zinegotzia• Elhuyar Aholkularitzako teknikaria
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none">• Prozesua antolatu eta koordinatu (galdetegiak, komunikazioa landu...).• Taldeen osaera zehaztu.• Diagnostikoa osatzeko datuak adostu.• Udalerriko alor ezberdinetako eragile, erakunde eta espazio nagusien mapa zehazten hasi.• Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbidea bilatu.
UDALEKO LANTALDEA	
Partaideak	<ul style="list-style-type: none">• Legazpiko Udaleko ataletako arduradun tekniko eta politikoak• Legazpiko Euskara Zerbitzuko teknikaria• Elhuyar Aholkularitzako teknikaria
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none">• Gobernantza-ereduaz gogoeta egin.• Udalerriko alor ezberdinetako eragile, erakunde eta espazio nagusien mapa osatu.• Komunikazio-kanalak eta plana adostu eta garatu.
DISEINU-TALDEA	
Partaideak	<ul style="list-style-type: none">• Legazpiko eragile eta herritarren taldea.• Elhuyar Aholkularitzako teknikariak
Funtzioak	<ul style="list-style-type: none">• Euskararen inguruan dituzten kezkak eta beharrak partekatuta, datorren hamarkadarako euskararen erronkak eta eta haiek lortzeko estrategiak eta bideak adostu.• Horretarako:<ul style="list-style-type: none">• Elkar entzuteko abagunea sortu.• Diagnostikoa kontrastatu eta osatu.• Plan estrategikoaren erronkak eta lan-ildo estrategikoak proposatu eta adostu.• Plana garatzeko antolamenduaren inguruko gogoeta egin.

3.4 Metodologia

AROA plana egiteko metodologiak hiru urrats nagusi izan ditu:

AURRELANAK eta DIAGNOSTIKOA




Prozesua antolatu, kronograma egin, herritarrek parte hartzeko guneak antolatu, diagnostikorako datu-bilketa antolatu.



Diagnostikoa osatu: udalerriko datuak, herritarren galdetegia eta talde-elkarrizketak (3).

GOGOETA-FASEA eta SORTZE-FASEA



Udaleko arduradun tekniko eta politikoekin saioa: diagnostikoa aurkeztu eta etorkizuneko erronka eta lan-ildoak identifikatu.



Diseinu-taldean, Legazpiko herritarrekin bi saio: diagnostikoa kontrastatu, etorkizuneko erronkak identifikatu eta erronka horiek erdiesteko ekintzak proposatu.

ANTOLAMENDUA eta PLANA



Plana osatu eta Talde Eragilean kontraste-ariketa egin.

Planaren deboluzioa egin parte-hartzaile guztiei.

Planaren garapenerako eta jarraipenerako antolaketa-eredua zehaztu.

4. DIAGNOSTIKOA

Legazpiko euskararen egoeraren gaineko diagnostikoa osatzeko hainbat informazio-iturri erabili ditugu:

- Legazpiko datu demografikoak (Eustat).
- Legazpiko euskara-ezagutza datuak (Eustat).
- Legazpiko kale-erabilera datuak (Soziolinguistika Klusterra, kale-neurketak).
- Herritarren iritzia jasotzeko galdetegia (242 erantzun).
- Udaleko euskara-zerbitzuaren datuak.

Horrez gain, diagnostikoa herriko zenbait elkarte eta norbanakoekin kontrastatu dugu talde-elkarrizketen bidez, eta datu horiek oinarri hartuta, hausnarketa kolektiboa egin dugu euskara ikasteko eta erabiltzeko zailtasunak eta motibazioak identifikatzeko. Helburua izan da profil ezberdinetako herritarren iritzia eta pertzepzioak jasotzea diagnostikoa osatzeko.

Guztira 30 Legazpiarrek parte hartu dute talde-elkarrizketetan:

- Enbaxadoreak: 10 kide (6 emakumezko eta 4 gizonezko)
- Jai-batzordeak: 10 kide (8 emakumezko eta 2 gizonezko)
 - Haur danborrada
 - Helduen danborra
 - Txo!Esna
 - Hegialdeko auzo-elkartea
 - Mugimendu sozialista
- Empalabramiento: 10 emakume

Jarraian jaso ditugu diagnostikoko¹ zenbait datu:

4.1 Datu demografikoak

2024ko datuen arabera, 8372 biztanle ditu Legazpik, eta horietatik % 73 EAEko lurralderen batean jaiotakoa da. Gainerakoak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotakoak dira (%28).




¹ Diagnostikoa osorik ikusteko jo dokumentu honetara: *Diagnostikoa_Legazpi_2025_urria.pdf*

4.2 Ezagutza-datuak


Ezagutza-datuei erreparatzen badiegu, Legazpiarren % 60,88 euskalduna da, eta % 24, aldiz, euskaldun hartzailea. Beraz, Legazpin herritarren % 80k baina gehiagok du euskararen gaineko ezagutzaren bat.

Halaber, ezagutza-datuak goranzko joera izan dute azken urteetan.



4.3 Erabilera-datuak

2021eko Soziolinguistika Klusterrak egindako kale-neurketen arabera, Legazpin kale-erabilera % 33,9koa da. Bilakaerari erreparatzen badiogu, halaber, goranzko joera izan du:



Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabilera Kale Neurketa, LEGAZPI 2001, 2006, 2011, 2016, 2021.

Generoari erreparatzen badiogu, emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago alde nabarmenik. Adinari erreparatzen badiogu, aldiz, haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

Eremuari dagokionez, behe-aldean erabiltzen da euskara gehien. Edonola ere, Goialdean euskararen bilakaerak goranzko joera izan du.

4.4 Herritarren pertzepzio eta iritziak

Ezagutzari dagokionez:

- Euskara ezagutzen ez dutenek, euskara ikasteko nahia dute eta garrantzia ematen diote euskara jakiteari.
- Herritarrek herrian euskara ikasteko aukerak ezagutzen dituzte (euskaltegia, ikastetxeak, EPA, mintzalagun egitasmoa...). Baina ez herritar guztiek, batzuk informaziorik ez dute. Hala ere, euskara ikasteko baliabideak egokiak ote diren galdetzean, hainbatek ezezkoa erantzun dute.
- Euskara ikasteko aukerak kontziliatzeko zailak dira, eta bestelako ikastaroak eskaintzearen beharra azpimarratu da. Euskara ikasteko aukerak zabaldu behar dira.
- Euskara ikastea zaila denaren pertzepzioa dago.
- Familia-transmisioa garrantzitsua da: gurasoek eredu izan behar dute.

Jarrerari dagokionez:

- Oro har, euskararen aldeko jarrera dute Legazpiarrek. Euskara sustatzeko neurriak hartzea garrantzitsua dela uste dute.
- Euskara ikasteko motibazioen artean seme-alabak, lan-mundua eta integrazioa dira gehien azpimarratu diren aldagaiak.
- Zailtasunen artean, aldiz, kontziliazioa, harreman-sarea ez izatea eta hizkuntza-ohiturak azpimarratu dira.

Erabilerari dagokionez:

- Herritarrek adierazi dute aisialdian (kirol zein kultur jardueretan) euskararen erabilera apalagoa dela.
- Sare sozialak, telesailak, filmak, literatura, hedabideak ... gaztelaniaz kontsumitzen dituzte, batez ere, Legazpiarrek (musika, aldiz, gehiago kontsumitzen dute euskaraz).
- Herritar askorentzat harreman sarea ez izateak euskarara hurbiltzeko edota euskara ikasteko zailtasunak sortzen ditu. Hizkuntza eta kultura aniztasuna aintzat hartuta, komunitatea egitea garrantzitsua izango da euskaratik urrun daudenak euskarara gerturatzeko.
- Hizkuntza-ohiturek eragin handia dute: euskaraz ikasi duten Legazpiarrentzat zaila da herriko jendearekin euskaraz aritzeko jauzi egitea.
- Haurren eta gazteen artean kezka dago: gero eta euskara gutxiago erabiltzen dute, eta gero eta lehenago hasten dira euren artean gazteleraz hitz egiten.

5. PLAN ESTRATEGIKOA 2026-2036

5.1 Planaren erronkak eta lan-ildoak

Hona hemen Talde Eragilean, Udaleko Lantaldean eta herritarrekin egindako saio irekietan identifikatu diren erronka nagusiak eta horiek lortzeko lan-ildoak.

Ardatza		GOBERNANTZA
Erronka		G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.
Lan-ildoak		G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.
Lan-ildoak		G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.
Erronka		G.2. Berriazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.
Lan-ildoak		G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.
Erronka		G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.
Lan-ildoak		G.4.1. Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu
Lan-ildoak		G.4.2. Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeekiko harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.

Ardatza		JARRERA ETA MOTIBAZIOA
Erronka		JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.
Lan-ildoak		JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.
Erronka		JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.
Lan-ildoak		JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu.
Lan-ildoak		JM.2.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.
Lan-ildoak		JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.

Ardatza		EZAGUTZA ETA GAITASUNA
Erronka		EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.
Lan-ildoak		EG.1.1. Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri.
Lan-ildoak		EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.
Lan-ildoak		EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.
Erronka		EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.
Lan-ildoak		EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.
Lan-ildoak		EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.
Erronka		EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.
Lan-ildoak		EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak

Ardatza	ERABILERA ETA ELKARRERAGINA
Erronka	EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.
Lan-ildoak	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.

Ardatza	BERRIKUNTZA
Erronka	B.1.Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu

Ardatza	IKERKETA ETA SISTEMATIZAZIOA
Erronka	IS.1.Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

Ardatza	KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA
Erronka	KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu

Jarraian jaso dugu Legazpin euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko AROA marko estrategikoa. Bertan, ardatz bakoitzeko erronka eta lan-ildo bakoitza erdiesteko ekintzak, arduradunak eta epeak zehaztu ditugu:

- Urdinez jaso ditugu ekintza-proposamen berriak.
- Berdez, gaur egun udalak abian dituenak.
- Arrosez, udalaren eskumenekoak ez diren ekintzak, baina eragin ditzakeenak.

GOBERNANTZA		2026	Arduradunak
Erronka	G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.		
Lan-ildoak	G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.		
Ekintza	Zerbitzu publikoetan euskara-gaitasuna eskatu.	X	Udala
Lan-ildoak	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.		
Ekintza	Euskararen mahai bat sortu AROA planaren garapena eta jarraipena egiteko, herriko eragileek eta instituzioek parte hartuko dutena.	x	Udala eta gizarte eragileak
Ekintza	Dirulaguntza eta hitzarmenetan, hizkuntza-irizpideak txertatu eta jarraipena egiteko neurriak hartu.	X	Udala
Ekintza	Herri mailako euskara elkarte bat sortu eta udalak diruz lagundu.	X	Herriko euskaltzaleak
Ekintza	Udaleko bilerak euskara hutsez egin; horretarako, itzulpen-zerbitzua jartzeko aukerak aztertu.		Udala
Erronka	G.2. Berriazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.		
Lan-ildoak	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara-ardatz izanik.		
Ekintza	Ongi etorri gida: herrian erroldatzera datozen pertsonen udalerrak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio funtsezkoena eskaini, euskara ardatz izanda.	X	Udala
Ekintza	Familia-programak abian jarri: bertako familiak eta jatorri atzerriko familiak elkartu, akonpainamendua egiteko eta herriko ekimenetan parte hartzeko.		Udala
Ekintza	Oinarrizko hiztegi bat banatu herrira bizitzera datozen herritarrei banatzeko: oinarrizko esaldiak, agurrak, zenbakiak...		Udala
Ekintza	Euskararen inguruko baliabideen zerrenda eskura jarri (batez ere haur/gazteentzat interesgarriak).		Udala
Erronka	G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.		
Lan-ildoak	G.4.1. Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu		
Ekintza	Sare sozialetan herritarrak agertzen diren bideoak jarri (herriko jendea elkarrizketatu eta zabaldu). Euskarazko galdera-jolasak egin legazpiarren artean, sare sozialetan zabaltzeko.		Udala eta gizarte eragileak
Ekintza	Herri mailako difusio talde bat sortu: notiziak, dinamikak, bitxikeriak eta euskararen inguruko gauzen zabalkunderako.	x	Euskara Zerbitzua eta Udala
Ekintza	APP sinple bat sortzeko aukerak aztertu, euskarara hurbiltzeko, eta euskararen gaineko gutxieneko ezagutza bat izateko.		Udala
Lan-ildoak	G.4.2. Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeekiko harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.		
Ekintza	Lankidetzeta-hitzarmena GOIERRIKO HEDABIDEAK SL enpresarekin, herrian euskarazko HITZA egunkaria zabaltzeko.	X	Udala

JARRERA / MOTIBAZIOA		2026	Arduradunak
Erronka	JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.		
Lan-ildoak	JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.		
Ekintza	Motibazio-saioak DBH4ko ikasleei (2 orduko 3 saio)	X	Udala eta ikastetxeak
Ekintza	Euskararekiko errepresioa jasan zutenen testigantzak kontatu ikasleei ikastetxeetan kontzientziatzeko.		Ikastetxeak eta udala
Ekintza	Herri mailan "Euskal-kulturaren" eguna antolatu: dantzariak, bertsolariak, herri-kirol apustuak, herri-jolasen txapelketak kuadrillen artean...	X	Udala eta kultur/kirol taldeak, Sorgintxulo
Erronka	JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.		
Lan-ildoak	JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu.		
Ekintza	Herrian euskara sustatzeko irratsaioa edo podcasta abian jartzeko aukerak aztertu.		Herriko eragileak
Ekintza	Euskarazko hitz eta espresio berri "asmatuen" lehiaketa egin, adin tarte desberdinetan -> "Legazpiarren etorkizuneko hiztegi asmatua"		Udala
Ekintza	Idatzizko lehiaketak (heldu zein gazte) antolatu.		Udala, euskara elkarteak, ikastetxeak
Lan-ildoak	JM.2.2. Gizartearen aktibatzeko esperientziak indartu eta hedatu.		
Ekintza	Hizkuntzan erreferente direnekin talde-elkarrizketak, hitzaldiak eta bestelako ekimenak antolatu; horretarako baliabidea ekonomikoak jarri eta aurrez aztertu zein erreferente izan daitezkeen egokiak.		Udala eta ikastetxeak
Ekintza	Euskal idazle/kirolari/sukaldari... ezberdinekin hitzaldiak egin euskaraz.		Udala
Lan-ildoak	JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri.		
Ekintza	Espazio publikoetan (udalean, kultura-etxean, ikastetxean, kaleko telebista ...) Legazpin hitz egiten diren hizkuntza guztietan ohikoak diren hitz eta esapideak jarri.		Udala
Ekintza	Kulturarteko eguna baliatu hizkuntza balioan jartzeko. Hizkuntzaren aldagaia ere txertatu eta herriko hizkuntza-aniztasuna presente izateko dinamikak egin.		Udala

EZAGUTZA ETA GAITASUNA		2026	Arduradunak
Erronka	EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.		
Lan-ildoak	EG.1.1. Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartearen orokortzeko bideak jarri.		
Ekintza	Gune edo inguru euskaldunetan euskaraz egiteko aukera dagoela adierazteko kanpaina abiatu.		Komertzio, zerbitzu-publiko, euskara-zerbitzua, udala...
Ekintza	Euskararen inguruko ekintzak sustatu eta hiztunak identifikatu (nagusilan...).		Udala, herriko elkarteak, euskara-zerbitzua...
Lan-ildoak	EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.		
Ekintza	Jolas Molaz tailerra antolatu, HH3-HH5eko haur eta familientzako	X	Euskara-zerbitzua
Ekintza	HAZI HEZI aldizkariaren urtebeteko doako harpidetza eskaini 3 urte betetzen dituzten hauren gurasoei.	X	Euskara-zerbitzua
Ekintza	Gurasoentzako motibazio-saioak antolatu transmisioaren garrantzia azpimarratzeko (Paula Kasares, Iñaki Eizmendi...)		Euskara-zerbitzua, hezkuntza eta ikastetxeak
Ekintza	Jaiotzean familiei euskal abestien bilduma eman CD, pen-drive...).		Udala
Ekintza	Haur eta gazteentzako urtebeteko harpidetza eskaintzeko aukera aztertu: "Mantangorri"ren tankerako aldizkaritxo batera edo helduagotan "Gaztelulo"ren tankerako batera.		Udala
Lan-ildoak	EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.		
Ekintza	Irakasle eta hezitzaileei trebakuntza soziolinguistikoa eskaini.		Udala eta ikastetxeak
Erronka	EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.		
Lan-ildoak	EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.		
Ekintza	LHko ikasleentzako euskararen errefortzu-saioak antolatu.	X	Euskara-zerbitzua eta Ttakun
Ekintza	Udalerriko kirol-klubetako entrenatzaile/ begiraleak euskaraz prestatzeko gastuetarako dirulaguntzak eskaini.	X	Euskara-zerbitzua eta kirol-klubak
Ekintza	Herritik kanpo euskara ikasteko eta Udako Euskal Unibertsitatara edo euskararen normalizazioarekin zerikusia duten bestelako ikastaroetarako dirulaguntzak eskaini.	X	Euskara-zerbitzua

Lan-ildoak	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.		
Ekintza	Euskara ikasteko dirulaguntzak eskaini.	X	Euskara-zerbitzua
Ekintza	A0 mailako ikastaroak doan eskaini, euskaratik urrun dagoen jendea euskarara hurbildu dadin.		Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak
Ekintza	Doakotasuna, ordutegi egokiak, ikastaro laburrak...antolatzeko aukerak aztertu.	x	Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak
Ekintza	Mintza-praktikak egiteko jendea identifikatu, eta aukerak eskaini.		Euskara-zerbitzua, borondatezko herritarrak
Erroka	EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.		
Lan-ildoak	EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.		
Ekintza	Entzuketa-saioak egin atzerritar jatorriko herritarrekin, euskara ikasteko dituzten beharrak jasotzeko, eta berariazko ikastaroak antolatzeko aukera aztertu.	X	Udala eta euskaltegiak

ERABILERA / ELKARRERAGINA		2026	Arduradunak
Erronka	EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.		
Lan-ildoak	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu		
Ekintza	Errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzen dituztenei dirulaguntzak.	X	Euskara-zerbitzua
Ekintza	Merkataritza: euskaraz barra-barra marka zabaltzeko kanpaina. Gaur egun Legazpin, 13 dende eskuratu dute marka. Aurten berriro egin die merkatariei gonbita marka eskura dezaten.	X	Euskara-zerbitzua
Ekintza	Euskarazko zerbitzuen gida (denda, taberna...) zabaltzeko aukerak aztertu.		Udala eta Goierriko HITZA
Ekintza	<i>Euskal-pote</i> moduko bat sortu, bi hilabete behin-edo: tabernetan euskal musika eta euskaraz hitz egitea bultzatu.		Ostalaritza eta herriko eragileak
Ekintza	Udaleku irekiak eskaini HH2 eta LH4 bitarteko haurrei, euskaraz: euskarazko harremanak sustatu, euskaraz ongi pasa, belaunaldien arteko harremanak eraiki...	X	Euskara-zerbitzua
Ekintza	Sorgintxulo aisialdia taldea: hilero ekintza bat antolatu maila desberdineko haurrentzako	X	Euskara-zerbitzua eta Sorgintxulo
Ekintza	Kirol entrenamenduetan euskararen erabilera areagotzeko mikro-planak, pilulak eta kirol-mahaiak abiatu.	X	Euskara-zerbitzua eta Ilintxa
Ekintza	Euskara eta kirola bultzatzeko "Run-club" bat osatzea (mendi martxak euskaraz asteburuetan).		Kirol-taldeak
Ekintza	Aisialdi titulua euskaraz ateratzeko sustapen-neurriak hartu.		Udala eta ikastetxeak.
Ekintza	Euskal kultura sustatzeko sariak emateko aukerak aztertu: deskontuak, sariak ... (adibidez, X ekitalditara joan bazara, hurrengoan doan).		Udala
Ekintza	Euskarazko produktuen katalogoarekin batera, euskarazko kontsumoa indartzeko publizitatea egin eta euskarri ezberdinetan zabaltzeko aukerak aztertu (podcast-a, web ataria ...).	x	Udala
Ekintza	Herriko aldizkari bat sortzeko aukerak aztertu (Ene Bada gisa), herriko jendea partaide izanik.	X	Udala
Ekintza	Euskarazko zinema eta antzerkiaren eskaintza aztertu eta areagotzeko aukerak ikusi.		Udala

BERRIKUNTZA		2026	Arduradunak
Erronka	B.1.Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu		
Ekintza	Udalekin programan parte hartu eta bertan landutakoak Legazpin abiatzeko aukerak aztertu.	X	Udala
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA			
Erronka	IS.1.Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.		
Ekintza	Etorkizunera begira, euskararen biziberritzean interesgarriak izan daitezkeen datu-bilketak identifikatu eta horien ikerketa antolatu.		Udala
KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA			
Erronka	KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu		
Ekintza	Udalak egiten dituen kanpainen (haur jaioberriak, matrikulazio-kanpainak, euskara-ikastaroak ..), gizartearen ezaugarrietara egokitzeko bide berriak bilatu. Horretarako, hausnarketa egin eta aukera berriak identifikatu.		Udala
Ekintza	Euskararen biziberritzean, ikuspegi berria(k) aintzat hartuko dituen diskurtsoak hedatzeko komunikazio-bideak aztertu.		Udala

6. PLANAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA

6.1 Gobernantza

AROA elkarlanerako markoa da, erakunde eta eragile sozialen arteko lankidetzaz sustatu nahi duena, eta nahi horri erantzuteko, markoan bertan zehazten den moduan, beharrezkoa da gobernantza eredu jakin bat, zeharkakotasunean eta parte hartze koordinatuan oinarritutakoa eta, era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diena.

Izan ere, euskara zerbitzuek edota euskalgintzak egingo duen jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberitzea. Legazpin ere apustu egin da datorren plangintzaldian euskararen plan estrategikoa elkarrekin eta elkarlanean aurrera eramateko egiturak sendotu eta sortzeko.

Udaleko Zuzendaritza Taldea izango da euskara-planaren jarraipena egiteaz arduratuko dena, eta urtean bitan elkartuko da (uztailean, lehenengo seihilekoaren jarraipena egiteko, eta urtarrilean, bigarren seihilekoaren jarraipena egiteko). Horrez gain, Euskararen Mahaia sortuko da, beharrezkotzat jotzen diren eragile sozialekin batera (ikastetxea, ostalaritza, euskara elkarteak eta taldeak, kirol eta aisialdi elkarteak...), planean jasotako erronkei elkarrekin erantzuteko.

	Funtzioak	Osaera
Zuzendaritza Taldea	Urteko kudeaketa-plana onartzea. Planaren jarraipena egitea. Planaren balorazioa egitea.	Alkatea Idazkaria Kontu-hartzailea Arloetako teknikariak eta arduradun politikoak
Herriko Euskara Mahaia	Urteko kudeaketa-plana osatzea. Planaren jarraipena egitea. Planari ekarpenak egitea. Planaren balorazioa egitea.	Euskara Batzordea Gizarte eragileak (ikastetxeak, ostalaritza, kirol-elkarteak, aisialdi-elkarteak, kultura-elkarteak...)

6.2 Adierazleak

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eta aurreko lerroetan aipatutako erronka eta lan-ildoak erdiesteko, bide onetik goazen ala ez jakiteko datuak beharko ditugu. Hori dela eta, plan estrategikoarekin batera, helburuen betetze-maila ezagutzeko 15 adierazle hartuko ditugu kontuan:

ADIERAZLEAK	
1. GOBERNANTZA	
1	Gizarte-eragileek eta elkarlanean aritutako entitateek egindako planaren balorazioa.
2	Euskarazko hedabideen irismena: erabiltzaile-kopurua.
3	Planaren betetze-maila eta aurrekontuaren betetze-maila.
4	Planaren ebaluazio kualitatiboa.
2. JARRERA ETA MOTIBAZIOA	
5	Legazpiko herritarren euskararekiko aldeko jarrera.
3. EZAGUTZA ETA GAITASUNA	
6	Euskararen ulermena Legazpin: euskaldun osoen %, euskaldun hartzaileen % eta erdaldunen %.
7	Urtero udalaren dirulaguntzak lagundutako Legazpiarrak, euskaltegietan eta euskara-arloko dirulaguntza bidez.
8	Euskara ikasi duten herritar-kopurua.
4. ERABILERA ETA ELKARRERAGINA	
9	Euskararen erabilera Legazpin
10	Etxeko erabilera
11	Erabilera euskaraz aisian, haur eta gazteen artean (%)
12	Euskarazko aisialdi-eskaintza, aisialdi-eskaintza guztiarekiko.
13	Euskarazko kultura-eskaintza kultura-eskaintza guztiarekiko.
14	Euskararen erabilera kirolean, haur eta gazteen artean (%)
5. IKERKETA ETA SISTEMATIZAZIOA	
15	Egindako ikerketa-kopurua.